# NAZIONAL MERKATUAN EUROTAN ERAGIKETETAKO BALDINTZA OROKORRAK.

01. EPIGRAFEA: MERKATARITZA-EFEKTUEN KOBRANTZA.

02. EPIGRAFEA: ORDAINDU GABEKO EDO ERREKLAMATUTAKO MERKATARITZA-EFEKTUAK ITZULTZEA.

03. EPIGRAFEA: TXEKEAK NEGOZIATZEA.

04. EPIGRAFEA: TXEKEAK ITZULTZEA.

05. EPIGRAFEA: ORDAINKETA ZERBITZUAK: ENTITATEEN AGINDUAK, HELBIDERATZEAK ZORDUNTZEKO, HELBIDERATUTAKO ORDAINAGIRIAK LAGATZEKO ETA ITZULTZEAK EGITEKO. (Kobrantza-gestioan edo konpentsatzeko hartuak).

06. EPIGRAFEA: ORDAINKETA ZERBITZUAK: NOMINAK, TRANSFERENTZIAK ETA BESTE ORDAINKETA AGINDU BATZUK.

07. EPIGRAFEA: ORDAINKETA ZERBITZUAK. TXARTELAK ETA KUTXAZAINAK ERABILTZEA.

08. EPIGRAFEA: ORDAINKETA ZERBITZUAK. AGERIKO GORDAILUAK

10. EPIGRAFEA: URRUTIKO BANKA.

11. EPIGRAFEA: ALOKAIRU-KAXAK ETA BESTELAKO GORDAILUAK ZAINTZEA.

12. EPIGRAFEA: ESKAINITAKO HAINBAT ZERBITZU.

13. EPIGRAFEA: ABALAK ETA BESTELAKO BERMEAK.

14. EPIGRAFEA: KREDITUAK ETA MAILEGUAK.

15. EPIGRAFEA: EPERAKO GORDAILUAK.

16. EPIGRAFEA: BALORE MERKATUKO ERAGIKETAK ETA ZERBITZUAK ETA BALORE HIGIGARRIAK JAULKITZEN DITUZTEN ENTITATEEN KONTURA EGINDAKO ERAGIKETAK.

17. EPIGRAFEA: ZOR PUBLIKOA (KONTUAN IDAZTEKO SISTEMA) ETA ESTATUAREN ZOR IDATZIAN OINARRITUTAKO GORDAILU BEREZIA.

18. EPIGRAFEA: LEASING.

19. EPIGRAFEA: FACTORING.

20. EPIGRAFEA: BERRETSITAKO ORDAINKETEN GESTIOA (Hornitzaileei Ordaintzearen Gestioa eta Confirminga).

21. EPIGRAFEA: TXEKEAK ETA BERMATUTAKO BESTE AGIRI BATZUK.

## 00. EPIGRAFEA: NAZIONAL MERKATUAN EUROTAN ERAGIKETETAKO BALDINTZA OROKORRAK.

### 1.- APLIKAZIO-EREMUA

Tarifa hau bezero guztiei aplikatuko zaie, bai enpresei bai partikularrei, Espainiako Bankuan erregistratuta dauden Banku, Aurrezki–Kutxa Konfederatu, Nekazaritza–Kutxa edo Kreditu–Kooperatibekin egindako bankuarteko eragiketak direnean izan ezik; izan ere, kasu horietan dagokion Tarifa aplikatuko baita.

Tarifa hauek barne-merkatuan eurotan egindako eragiketei dagozkie. Kanpo-merkatuan eurotan egindako eragiketei dagozkien tarifak honako epigrafe hauetan daude jasota: “Kanpoko transakzioen ondorioz, atzerriko dirutan eta diru nazionalean egindako eragiketen komisioen gehienezko tarifak, baldintzak eta eragiketen gastuak, Espainiako bezeroei aplikagarriak”.

Tarifa hauetan ageri diren baldintza eta komisio guztiak gehienezkoak dira. Euskadiko Kutxak baldintza hobeak aplikatu ahal izango ditu, bezero bakoitzaren kalitatearen eta kontratazio-bolumenaren arabera.

Gure bezeroek tarifa hauetan aurreikusita ez dauden ezohiko eragiketa edo zerbitzuak eskatuz gero, kasuan kasuko baldintzak ezarriko zaizkie.

### 2.- POSTA-GASTUAK

Kontzeptu hau dela eta kobratuko diren kopuruak, eragiketa bakoitza egitean sortzen direnak izango dira.

### 3.- BESTELAKO GASTUAK

Bezeroaren kontura izango dira Merkataritza Fede-Emaileak edo Notarioak parte hartzeagatiko gastuak, eta baita erregistrokoak, gestoretzakoak, izapideak egiteagatikoak eta behar bezala justifikaturik Lan Kide Aurrezkiari eskatzen zaizkion guztiak ere.

### 4.- ZERGAK

Komisioen kobrantzak eta tarifetan aurreikusitako eragiketek eragindako zerga guztiak, oraingoak zein etorkizunekoak, titularraren kontura izango dira.

**01. EPIGRAFEA: MERKATARITZA-EFEKTUEN KOBRANTZA.**

**KANBIO-LETRAK, ORDAINAGIRIAK, ORDAINDUKOAK ETA BESTE FINANTZA-AKTIBO BATZUK, EUSKARRI MAGNETIKOAN JAKINARAZITAKO IGORPEN EDO KREDITU FUNTZIOA BETETZEN DUTENAK, HORIEK AURRERATU ETA KOBRANTZA KUDEATU AHAL IZATEKO (negoziaziorako, kobrantza kudeatzeko edo konpentsaziorako hartuak).**

| ZEHAZTAPENA | KOMISIOA | | | POSTA EGINDAKO BIDALKETAGA TIK |
|---|---|---|---|---|
| | EFEKTU BAKOITZEKO | %o EFEKTUAREN NOMINALAREN GAINEAN | GUTXIENE KOA EFEKTUKO | |
| 1.- Efektuen negoziazioa edo deskontua. (Ikus 6, 8 eta 15 oharrak). | | | | |
| 1.1.– Efektu helbideratu onartuak. | --- | 5,00 | 9,00 € | Ikus 7. oharra |
| 1.2.- Efektu helbideratu onartu gabeak. | --- | 10,00 | 9,00 € | Ikus 7. oharra |
| 1.3.- Efektu helbideratu gabeak. | --- | 12,00 | 12,00 € | Ikus 7. oharra |
| 2.- Kobrantza kudeatzeko edo konpentsaziorako dauden efektuak. (Ikus 6, 8 eta 15 oharrak). | | | | |
| 2.1.– Efektu helbideratu onartuak. | --- | 5,00 | 18,00 € | Ikus 7. oharra |
| 2.2.- Efektu helbideratu onartu gabeak. | --- | 10,00 | 18,00 € | Ikus 7. oharra |
| 2.3.- Efektu helbideratu gabeak. | --- | 12,00 | 18,00 € | Ikus 7. oharra |
| 3.- Onarpena kudeatzea, bezeroak eskaturik. (Ikus 4. oharra). | --- | 1,00 | 12,02 € | --- |
| 4.- Agiri ez-trukagarriak. (Ikus 8. oharra). | --- | 2,50 | 8,41 € | Ikus 7. oharra |
| 5.- Sailkapen-azterketaren gastuak, mugaren gainean aplikatzekoak. (Ikus 9. oharra). | --- | 10,00 | 150,25 € | --- |
| 6.- Jatorrizko agiriak edo kopiak eskatzea. (Ikus 13. oharra). | 6,01 € | --- | --- | Ikus 7. oharra |
| 7.- Kobrantza-emaitzaren eskaerak. (Ikus 14. oharra). | 6,01 € | --- | --- | --- |

| ZEHAZTAPENA | KOMISIOA | | | POSTA EGINDAKO BIDALKETAGATIK |
|---|---|---|---|---|
| | EFEKTU BAKOITZEKO | %o EFEKTUAREN NOMINALAREN GAINEAN | GUTXIENEKOA EFEKTUKO | |
| 8.- Kobrantza bigarrenez kudeatzea.<br>(Ikus 15. oharra). | 6,01 € | --- | --- | --- |
| 9.- Intzidentzien berri ematea.<br>(Ikus 16, 17 eta 18 oharrak). | 9,02 € | --- | --- | Ikus 7. oharra |
| 10.- Neurriz gaindiko arriskua.<br>Negoziatutako bidalketa (gaindituktako zenbatekoaren gainean). | --- | 10,00 | 3,00 | --- |

1. OHARRA:

Banco de Españaren 8/1990 Zirkularraren arabera, 3. araua, 8. puntua, "Karteran dauden agiriak kobratzeko, banku-helbideraketatzat hartuko da horren ordainketa Gordailu Erakunde batean irekitako kontu baten kargura egin behar dela dioen adierazpena.

Horri begira, kanbio-letren helbideratzeari buruzko Kanbio eta Txekearen 19/1985 Legean xedatutakoa beteko da, eta Zirkular honen ondorioetarako, edozein kobrantza-agiritan aplikatu ahal izango da".

Tarifa honen ondorioetarako, honela hartzen dira:

a) Efektu helbideratu onartuak:

Hurrengo b) letran zehaztutakoaren arabera helbideraketa-baldintzak bete eta, gainera, igorpen-hartzailearen onarpen sinatua dutenak izango lirateke, hain zuzen ere onarpenerako gordetako lekuan, edo agiri horren atzealdean igorpen-hartzailearen sinadura dutenak.

b) Efektu helbideratu onartu gabeak:

Lagapenaren unean, horien ordainketarako, helbideraketa-tituluaren edukian horretarako dagoen toki batean, Gordailu Erakundea, haren Bulego bat eta efektuaren zenbatekoa zordundu beharreko kontu-zenbaki edo kontu-kodea izendatua dutenak izango lirateke, igorpen-hartzailearen onarpenik eduki gabe.

"Azken edukitzailea", "Bankura joan zaitez...", "Banku gomendatua" edo antzeko aipamen edo azalpen hutsak dituzten efektuak ez dira helbideratutzat hartuko.

2. OHARRA:

Tarifa honen ondorioetarako, euskarri magnetiko/fitxategi bidez jakinarazitako kredituak, kanbio-letrak, ordaindukoak, ordainagiriak edo antzeko agiriak (fakturak edo ordainagiriak, kobrantza-albaranak, etab.), euskarri fisikoan izan nahiz informatikoan izan, baldin eta merkataritza-transakzioei edo geroratutako salmentei badagozkie, efektutzat hartuko dira, eta 1. eta 2. epigrafeen menpe geratuko dira.

Merkataritzako eragiketa edo salmenta geroratuei dagozkien antzeko ordainagiri edo dokumentuak (fakturak edo ordainagiriak, kobrantza-albaranak, etab.) onartu gabeko efektu helbideratutzat hartuko dira.

**3. OHARRA:**

Epigrafe honen 2.1 puntuan sartuak daudela joko da, komisioak eta gastuak aplikatzearen ondorioetarako, obrak, hornikuntzak edo zerbitzuak burutzeagatiko ziurtagirien kobrantza, saritutako loteria eta kinielak, salbu eta helbideratu gabeko obra, hornikuntza edo zerbitzuak burutzeagatiko ziurtagiriak, izan ere horiei 2.3 puntuan aurreikusitako komisioak eta gastuak aplikatuko baitzaizkie.

Obra, hornikuntza edo zerbitzuen ziurtagirietan, onarpenaren kudeaketa egiten denean, zerbitzu horregatik %o1eko gutxieneko komisioa kobratuko da, gutxienez 15,00 Euro, kudeaketa egiten den unean jasotzekoa, edo bestela, negoziazio-gastuen edo kobrantza-kudeaketako gastuen likidazioarekin batera.

**4. OHARRA:**

Komisio hori jasoko da efektuen onarpena kudeatu dadila bezeroak berariaz agintzen duenean, eta betiere, Kanbio eta Txekearen Legeko (19/1985) 27. artikuluaren nahitaezko ondorioa ez denean.

**5. OHARRA: EDUKIERA BARIK.**

**6. OHARRA:**

Izapide bereziak dituzten efektuak:

a) Kanbio eta Txekearen Legeko 6. artikuluaren babesean, igorpen-hartzailearen kargura interesak sortzen dituzten efektuak beren sarrera edo negoziazioan likidatuko dira, nominalaren arabera, 1. epigrafe honekin bat etorriz.

   Horien kobrantza egin ondoren, Erakunde kobratzaileak interesak itzuliko dizkio Erakunde Hartzaileari, hark lagatzaileari ordain diezazkion, 6. epigrafeari dagokion transferentzia-komisioa kenduz.

b) Kanbio eta Txekearen Legeko 44. artikuluaren babesean kobrantza-kudeaketa bat baino gehiago egin behar den efektuetan, likidazio osagarri bat egingo da lagatzailearen kargura, eta horren barruan honakoak sartuko dira:

   - Egiten den geroko kobrantza-kudeaketa bakoitzeko komisio bat.
   - Efektuan adierazitako mugaegunetik ordaintzen den egunera arte sortutako interesak.

**7. OHARRA:**

Posta-gastuen kontzeptupean, bidalketa bakoitzak sortutako frankeoarenak jasoko dira.

**8. OHARRA:**

Agiria fisikoki aurkeztea beharrezkoa denean (ez trunkamendua) jasoko da komisio hori, bai Lagatzaileak Erakundeari egindako berariazko mandatu baten bidez, edo bai esku-hartzaileek adierazitako klausuletatik ondoriotzen denaren arabera ere. Komisio hau 1. eta 2. puntuetan adierazitakoez gain kobratuko da.

**9. OHARRA:**

Azterketa-komisioaren kontzeptupean, deskontu edo berritze-lerroetan lerroaren mugari buruz adierazitakoa kobratuko da.

**10. OHARRA:**

Caja Laboral, S. Coop.ek, bezeroak eskaturik eta haren kontura, kobrantza kudeatzeko aurkeztutako efektuei tinbrea jartzea onartzen duen kasuetan (Ekintza Juridiko Dokumentatuen zerga esku-dirutan ordaintzea), 0,12 Euroko komisio bat kobratuko da tinbredun efektu bakoitzeko.

**11. OHARRA:**

Efektuak edo igorpenak kobratzeko laga ordez euskarri magnetikoen edo fitxategien transmisio telematikorako sistema erabiltzen baldin bada, ezaugarri teknikoekin eta dokumentu-babes arautuekin, aurkezpen hori ordainketa-data baino lanegun bat lehenago gauzatu beharko da.

**12. OHARRA:**

Interesak kalkulatzeko orduan ez da efektuaren mugaeguna kontuan hartzen.

**13. OHARRA:**

Komisio hau kobratuko da baldin eta emate-itunik gabe gauzatutako efektuen jatorrizko agiriak edo fotokopiak eskatzen badira, horiek Kanbio eta Txekearen Legeko 45. artikuluaren babesean trunkatuz gero. Komisio hori ez da aplikatuko baldin eta jatorrizko agiriaren edo haren fotokopiaren eskaera trunkatze-prozesuan izandako gorabeherei emandako erantzunak eragindakoa bada.

**14. OHARRA:**

Kutxak efektu/kreditu baten kobrantzaren emaitzari buruzko ezagutza bezeroaren kontura kudeatzen duenean, kudeaketa horiengatik 7. Puntuan adierazitako komisioa kobratuko da, gehi telefono, telegrafo edo telexarekin loturiko gastuak.

**15. OHARRA:**

Komisio hau epigrafe honetako 1. eta 2. puntuetan adierazitakoen kalterik gabe kobratuko da, baldin eta bezeroak eskaturik bigarren kobrantza-kudeaketa bat egiten bada.

**16. OHARRA:**

Efektua aurrez erreklamatzen bada, epigrafe honen 9. puntuan agertzen den intzidentzi komisioa aplikatuko da, Kutxaren eskabidea mugaeguna baino 20 egun edo gehiago lehenago jasoz gero.

Eskabidea mugaeguna baino 20 egun lehenago jasotzen bada, berriz, 2. epigrafeko 1. puntuari dagokion itzulketa-komisioa aplikatuko da.

**17. OHARRA:**

Zorroko intzidentzia bakoitzeko, aipatutako efektuaren araberako komisioa jasoko da, 18. oharrean ezarri den kasuan izan ezik.

Testuinguru honetarako, hauxe izango da intzidentzia: bezeroaren aginduz negoziatzeko edo kobrantza-gestioa burutzeko Zorroan sartzean efektuak zituen egoera eta datuetan aldaketaren bat gertatzea.

**18. OHARRA:**

Mugaeguna edo ordainketa-eguna aldatuz gero, efektuaren zenbatekoaren (gutxienez 12,02 eurokoa izango da) %o 1eko komisioa kobratuko da aldaketa bakoitzeko. Epea handitzen bada, berriz, kopuru horri dagozkion interesak gehituko zaizkio, eta aldaketa egiten denean kobratuko da.

**02. EPIGRAFEA: ORDAINDU GABEKO EDO ERREKLAMATUTAKO MERKATARITZA-EFEKTUAK ITZULTZEA.**

**KANBIO-LETRAK, ORDAINAGIRIAK, ORDAINDUKOAK ETA BESTE FINANTZA-AKTIBO BATZUK, EUSKARRI MAGNETIKOAN JAKINARAZITAKO IGORPEN EDO KREDITU FUNTZIOA BETETZEN DUTENAK, HORIEK AURRERATU ETA KOBRANTZA KUDEATU AHAL IZATEKO (negoziaziorako, kobrantza kudeatzeko edo konpentsaziorako hartuak).**

| ZEHAZTAPENA | KOMISIOA | | | POSTA EGINDAKO BIDALKETAGATIK |
|---|---|---|---|---|
| | EFEKTU BAKOITZEKO | %o EFEKTUAREN NOMINALAREN GAINEAN | GUTXIENEKOA EFEKTUKO | |
| 1.- Efektuak itzultzea. (Edozein plazaren gainean igorritako efektuak). | --- | 60,00 | 20,00 € | Ikus 1. oharra |
| 2.- Notarioaren aurrean protestoa kudeatzea. | 15,03 € | --- | --- | Ikus 1. oharra |
| 3.- Ordaindu ez izanaren adierazpena kudeatzea. (Kanbio eta Txekearen Legeko 51. art.). | --- | 0,50 | 10,82 € | Ikus 1. oharra |
| 4.- Ez ordainduengatik kokapen zordunaren erreklamazioagatik komisioa. | 35,00 € | --- | --- | Ikus 6. oharra |

**1. OHARRA:**

**Posta-gastuen kontzeptupean bidalketa bakoitzak sortutako frankeoarenak jasoko dira.**

**2. OHARRA:**

**Notarioaren aurrean protestoa kudeatzeagatik, protestatutako agiri bakoitzeko tarifatutako komisioaz gain, notariotzako gastuak gehi kasu bakoitzean dagozkion gastu justifikagarriak kobratuko dira.**

**3. OHARRA:**

**Euskarri edo interkonexio bidez jasotako efektuekin loturik egin beharreko itzulketa guztiak, aipatutako truke-sistema horien bidez bideratu behar dira nahitaez.**

**4. OHARRA:**

**Notarioaren aurrean protestoa egiteko aurkeztutako efektuak lagatzaileari zordundu ahal izango zaizkio efektuaren fotokopia bat bidaliz.**

**5. OHARRA:**

**Igorpen-hartzaileak erakunde edukitzailean ordaindutako efektuak, behin ezarritako konpentsazio-sistema baten araberako kudeaketaren aurrean erakunde helbideratzaileak itzulketa egin ondoren, ordaindu gabekotzat joko dira, eta bidezkoa da horiei epigrafe honetako komisioak likidatzea, igorpen-hartzaileak horiek ordaintzen dituen unean.**

**6. OHARRA:**

**Efektu edo kreditu aurrerakin ez ordaindu bakoitzarengatik, kokapen zordunaren erregularizazioa egiteko idatzizko lehenengo erreklamazioa eskatzen denean, komisio hau behin bakarrik jasoko da (8. Epigrafea).**

## 03. EPIGRAFEA: TXEKEAK NEGOZIATZEA.

| ZEHAZTAPENA | KOMISIOA | | | POSTA |
|---|---|---|---|---|
| | TXEKE BIDEZ | %o TXEKEAREN NOMINALAREN GAINEAN | GUTXIENEKO A TXEKEKO | |
| 1.- Negoziazioa.<br>(Ikus 4. oharra)<br><br>1.1.- Kutxa beraren/g.<br>1.2.- Beste Erakunde baten/g. | ---<br>--- | ---<br>2,00 | ---<br>2,40 € | Ikus 3.oharra<br>Ikus 3.oharra |
| 2.- "Kanbio legea" adostua betetzea. (110. Art. txeke adostuak). | --- | 4,00 | 15,00 € | --- |
| 3.- Bankuak berak Banco de Españaren kontura txekeak igortzea, bezeroak eskaturik (txeke bidez). | --- | 4,00 | 15,03 € | --- |
| 4.- Txeke ez-arautuak.<br>(Ikus 4. oharra). | 4,51 € | --- | --- | --- |
| 5.- Faksimilea eskatzea (8. epigrafea).<br>(Ikus 7. oharra). | 6,01 € | --- | --- | --- |
| 6.- Eskudirutan egindako ordainketak.<br>(Ikus 5. oharra). | 1,50 € | --- | --- | --- |

1. OHARRA:

Epigrafe honen barruan sartuko dira kontu korronteko eta bankuko txeke guztiak, ordaindukoak eta truke-sistemetan konpentsatzen diren antzeko gainerako agiriak.

2. OHARRA: EDUKIERA BARIK.

3. OHARRA:

Posta-gastuen kontzeptupean bidalketa bakoitzak sortutako frankeoarenak jasoko dira.

4. OHARRA:

Agiri ez-araututzat hartuko dira ondorengo datuetarako karakter grafikorik eta magnetikorik ez dutenak: txeke-zenbakia, erakundea, Bulegoa, kontua eta agiri-mota, beren kontrol-digituekin. S.N.C.E.ko Txekeen eta Kontuko ordaindukoen Azpisistema Orokorra arautzen duen Banco de Españaren 11/90 zirkularreko jarraibide operatiboetan ezartzen denaren arabera.

Komisio hori 1. apartatukoaren osagarria da, eta zenbateko horrek agiri bakoitzarengatik bat izatea du funtsa, eta ez gutxienekoa izatearena.

**5. OHARRA:**

**Kontua helbideratuta ez dagoen bulego bateko txeke bidez esku-dirutan ordaintzen denean, 1,50 Euro kobratuko dira, sinaduraren ziurtapen eta fondo-horniduraren egiaztapen kontzeptupean.**

**6. OHARRA:**

**Nomina-txekeak komisioa kentzetik salbu daudela joko da.**

**7. OHARRA:**

**Entregatzeko itunik gabe ematen diren eta Kanbio-agirien eta Txekearen Legearen babesean trunkatu diren txekeen jatorrizko agiriak edo fotokopiak eskatzean kobratuko da komisio hau.**

**Jatorrizko agiria edo fotokopia trunkamendu-prozesuan intzidentziak konpontzeko eskatzen bada, berriz, ez da halako komisiorik kobratuko.**

## 04. EPIGRAFEA: TXEKEAK ITZULTZEA.

| ZEHAZTAPENA | KOMISIOA | | | POSTA |
|---|---|---|---|---|
| | TXEKE BIDEZ | %o TXEKEAREN NOMINALAREN GAINEAN | GUTXIENEKOA TXEKEKO | |
| 1.- Itzulketak.<br>(Ikus 2. oharra)<br><br>1.1.- Kutxa beraren/g.<br>1.2.- Beste Erakunde baten/g. | <br><br><br>---<br><br>--- | <br><br><br>---<br><br>30,00 | <br><br><br>---<br><br>10,00 € | <br><br><br>Ikus 1.oharra<br><br>Ikus 1.oharra |
| 2.- Notarioaren aurrean protestoa kudeatzea.<br>(Ikus 3. oharra). | 18,00 € | --- | --- | --- |
| 3.- “Kanbio legea” ordaindu ez izanaren adierazpena kudeatzea.<br>(146 eta 147. Art.). | --- | 0,50 | 6,01 € | --- |

**1. OHARRA:**

Posta-gastuen kontzeptupean bidalketa bakoitzarengatik sortutako frankeoarenak jasoko dira.

**2. OHARRA:**

Alderdi batek itzulketa egiten duenean, 1. puntuari dagokion komisioa aplikatuko da ordaindu gabeko zenbateko nominalaren gainean.

**3. OHARRA:**

Notarioaren aurrean protestoa kudeatzeagatik, protestatutako agiriagatik tarifatutako komisioaz gain, notariotzako gastuak gehi kasu bakoitzean dagozkion gastu justifikagarriak jasoko dira.

**05. EPIGRAFEA: ORDAINKETA ZERBITZUAK: ENTITATEEN AGINDUAK, HELBIDERATZEAK ZORDUNTZEKO, HELBIDERATUTAKO ORDAINAGIRIAK LAGATZEKO ETA ITZULTZEAK EGITEKO.**
**(Kobrantza-gestioan edo konpentsatzeko hartuak).**

**Epigrafe honetan jasotzen diren tarifak maximoen izaera dute eta bezero guztiei aplikatuko zaizkie (kontsumitzaileak eta ez kontsumitzaileak).**

| HELBIDERATZEEN KARGUAK EGITEKO AGINDUAK | Kontabilitate zordunketa arrunta dutenak (helbideratze bakoitzarengatik) | | Helbideratzearen zordunketa egiaztagiria sortuz gero (helbideratze bakoitzarengatik) | |
|---|---|---|---|---|
| | Komisioa | | Komisioa | |
| | %o | Gutxienekoa | %o | Gutxienekoa |
| Euskarri magnetikoarekin. (Ikus 6. oharra). | 4 | 4,00 | 4 | 4,00 (Ikus 4. oharra) |
| Euskarri magnetiko gabe (erlazioa edo zerrenda). (Ikus 6. oharra). | 4 | 4,00 | 4 | 4,00 (Ikus 4. oharra) |
| Entitate hartzaileak euskarri magnetikoan jasotzeko adostasuna agertzen duenean bakarrik onartuko dira. | | | | |

| ENTITATE JAULKITZAILEAK NORMALIZATURIKO ORDAINAGIRIEN LAGAPEN FISIKOA.<br>Agiri normalizatu bakoitzeko | Normalizatutako ordainagiri bakoitzeko | | |
|---|---|---|---|
| | Komisioa | | Posta |
| | %o | Gutxienekoa | |
| Euskarri magnetikoarekin. (Ikus 6. oharra). | 4,00 | 4,00 € | Ikus 4. oharra |
| Euskarri magnetikorik gabe. (Ikus 6. oharra). | 4,00 | 4,00 € | Ikus 4. oharra |
| Leihatilan kobratzeko. (Ikus 3. oharra). | 3,00 | 4,00 € | --- |
| Bezeroak eskatuta ordainagiri fisikoak konpentsatzea. (Ikus 7. oharra). | --- | 7,51 €<br>(Kopuru bakarra) | --- |
| Lagatzaileak euskarri magnetikoa edo ordainagiri fisikoak ematean, modalitatearen arabera hitzartutako tratamendu-era eta tokian egon beharko dira Bankuaren eskuetan, gutxienez agindu-data baino bost lanegun lehenago. Agindu-data hori bat etorriko da libratuari kargua egiteko edo Konpentsazio-ganbaretan aurkezteko egunarekin. | | | |

| ZORDUNKETA-AGINDUAK EDO ORDAINAGIRIAK ITZULTZEA | Itzulketa bakoitzeko komisioa | | |
|---|---|---|---|
| | Komisioa | | Posta |
| | %o | Gutxienekoa | |
| Entitate agindu-emaileari edo lagatzaileari euskarri magnetikoa edo Bankuak egindako frogagiria ematearen bidez. (Ikus 10. oharra) | 6,00 | 4,00 € | Ikus 4. oharra |
| Lagatzaileari jatorrizko ordainagiria itzultzearen bidez. (Ikus 5. oharra). | 6,00 | 5,00 € | Ikus 4. oharra |

**1. OHARRA.**

Ondorengo baldintza guztiak betetzen dituzten Ordainagiri helbideratuak eta Helbideratzeak zorduntzeko aginduak bakarrik egongo dira Atal honi lotuta:

a) Eman direneko tokia eta ordaintzeko edo kontuan kargatzekoa bat bera izan behar dute.

Fakturazioa zentralizatuta duten enpresen kasuan, fakturatutako zerbitzua ordainketa-tokian dagoen enpresa fakturatzailearen establezimendu edo instalazioak egiten duenean ulertuko da bat datozela emateko tokia eta ordainketarena.

Irabazi-asmorik ez duten hezkuntza, kultur, josteta eta lanbide-entitateen aldizkako kuotei dagozkien fakturazioa Atal honen barruan sartzeko ez da beharrezkoa emate-tokia eta ordainketarena bat etortzea, betiere gainerako baldintzak betetzen badira.

b) Aurkeztean ordaintzekoak izan behar dute.

c) Kontsumitzaile edo azken erabiltzailearen kargura libraturik, aldizkako izaera duten zerbitzu edo erabilerengatiko kuotak izan behar dira.

d) Ordainagirian edo zordunketa-aginduan ordainketa-helbide gisa, Entitatea, Sukurtsala eta kontu-zenbakia agertzea, eta zordunak aurretik eta espresuki baimena emanda izatea, ordainagiri edo zordunketa-agindu horiek abisatu gabe kontuan kargatzeko.

e) Entitate hartzailearentzat finantzaketa, fondo-aurrerapena edo balorazio-desplazamendua ez izatea.

**2. OHARRA.**

Edozein modutan ere, kobrantza-gestioan hartutako agiriak direnez, horien kopuru nominala kontuan ordainduko da, libratutako kontuetan kobrantza edo zordunketa-gestioa burutu ondoren.

**3. OHARRA.**

Entitate lagatzaileak ohar-frogagiria zuzenean titular bakoitzari igortzen badio horiek ordainketa Bankuaren leihatiletan egin dezaten, eta horrela Banku kobratzaileak ez badu frogagiri bana egin behar, eta Bankuaren eta Entitate lagatzailearen artean informazioa euskarri magnetikoan bakarrik pasatzen bada, minimo hori 1,80 € murriztuko da agiri bakoitzeko, betiere bere ezaugarriak kontuan hartuta.

Euskarri magnetikoa bezeroak eskuratuko du, edo bestela, euskarri fisiko propioaren kostuaren prezioa kobratuko zaio, bidalketa-gastuak gehituta.

Lagatzaileak euskarri magnetikoa edo ordainagiri fisikoak, modalitatearen arabera hitzartutako tratamendu-era eta tokian helarazi beharko zaizkio bankuari, gutxienez agindu-data baino bost lanegun lehenago.

**4. OHARRA.**

**Posta-gastu gisa, bidalketa bakoitzean sortutako frankeo-gastuak kobratuko dira.**

**5. OHARRA.**

**Euskarri edo interkonexio bidez jasotako efektuen itzulketa guztiak, aipatutako truke-sistema horien bitartez bideratu beharko dira.**

**6. OHARRA**

**EUSKARRI MAGNETIKO BIDEZKO LAGAPENDUN HELBIDERATZEAK ZORDUNTZEKO ENTITATEEN AGINDUetan edo ENTITATE IGORTZAILEEK NORMALIZATURIKO ORDAINAGIRIEN LAGAPEN FISIKOetan egindako kobrantza-gestioen ondorioz itzulketaren bat gertatzen bada, kobrantza-gestioko komisioez gain, ZORDUNKETA-AGINDUAK EDO ORDAINAGIRIAK ITZULTZEA aurreikusten direnak aplikatuko zaizkie.**

**7. OHARRA.**

**Bezeroak eskatzen badu libratuari ordainagiria fisikoki aurkeztea, eta konpentsazio elektronikoko sistemetan sartu beharra badago, kobrantza-gestioko komisioez gain, “Bezeroak eskatuta ordainagiri fisikoak konpentsatzea” puntuan dagokionez aurreikusten den komisioa aplikatuko da.**

**8. OHARRA.**

**Euskarri magnetikoari dagozkion tarifak aplikatzeko, zinta/euskarri bakoitzeko jasotako eragiketa-kopurua 150ekoa izango da gutxienez.**

**9. OHARRA.**

**Tarifa honen eraginetarako, merkataritza-transakzioei edo atzeratutako salmentei dagozkien ordainagiri edo antzeko agiriak truke-letratzat joko dira, eta efektuen kobrantza eta itzulketari buruzko 1. eta 2. Atalei lotuko zaizkie.**

**10. OHARRA.**

**Euskarri/diskete bakoitzeko 3,01 € kobratuko dira bidalketa-gastu gisa.**

## 06. EPIGRAFEA: ORDAINKETA ZERBITZUAK: NOMINAK, TRANSFERENTZIAK ETA BESTE ORDAINKETA AGINDU BATZUK.

Epigrafe honetan jasotakoak tarifa maximoak dira eta bezero guztiei aplikatzen zaie (kontsumitzaileak izan ala ez).

### 1.- SARRERA.

Bezero batek (agindu-emailea edo ordaintzailea) onuradun baten alde agindutako funts-mugimendu bat da transferentzia. Banku-transferentziatzat hartuko da, halaber, “beste erakunde” baterako funts-mugimendua, efektiboa ematearen bidez egindakoa.

Agindua nominak edo pentsioak ordaintzeko egiten bada, epigrafe honetako hirugarren atalak aginduko du. Agindua ematen deneko erakunderako bertarako transferentziei “barne-transferentziak” esaten zaie, eta, gainera, agindu-emaile eta onuraduna pertsona bera badira, “intsuldaketa” esaten zaio. Epigrafe honetako laugarren atalean bilduta daude bi tipologiak.

Funts-mugimenduen zerbitzu berezi hauek epigrafe honetako –“Efektiboan ordaintzeko aginduak”– bosgarren atalean biltzen dira.

Agindu-emaileak bidera dezake transferentziaren zenbatekoa, gehi zerbitzuko gastuak, kontuan ordaintzea edo, bestela, efektiboan ordaintzea.

Agindu-emailearen jarraibideak paperezko euskarrian eman daitezke erakundearen bulego batean, euskarri magnetiko bidez edo autozerbitzu gisako transmisio elektroniko bidez, edo telefono-bankuaren bidez.

Bezero agindu-emaileak bere agindua betetzeko beharrezkoak diren gutxieneko datuak adierazi behar ditu, baita jaulkipenaren urgentzia-maila ere. Prezio partekatuko (share) baldintzarekin ematen dira transferentziak, hau da, agindu-emaileak jasaten ditu bere erakundearen jaulkipen-prezioak, eta onuradunak, aldiz, berearen harrera-prezioak.

Agindu-emailearentzat edo onuradunarentzat adierazitako prezioak haren kontratu modalitateak bere baldintzen artean eragiketa horien kopuru jakin bat eta zerbitzu espezifikoa (zerbitzuen multzoa) baino prezio txikiago bat biltzen ez baditu aplikatzen dira betiere.

Bezeroaren zordunketaz bestelako dibisa batean (edo jasotakoaz bestelako dibisa batean) ordaindu beharreko transferentzietan aplikagarriak diren kanbio-tasak Laboral Kutxak egunero gehienez 3.000 euroko zenbatekoetarako edo zenbateko baliokideetarako argitaratutakoak izango dira, edo Laboral Kutxak finkatutakoak merkatu-kotizazioak kontuan hartuta, hori guztia transferentzia onartu zeneko datako salmenta-kanbioari dagokionez (edo ordainketa-datako erosketa-kanbioari dagokionez).

Euskarri magnetikoko tarifa aplikagarria izan dadin, 20 izango da euskarri bakoitzak bildu beharreko aginduen gutxieneko kopurua.

**2.- TRANSFERENTZIAK.**

**Atal honetan bildutako tarifak aplikatuko zaizkie ordainketa zerbitzuei eta beste premiazko hainbat finantza neurriei buruzko azaroaren 23ko 19/2018 Legeak eta 2009ko irailaren 16ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 924/2009 Erregelamenduak (EE) (260/2012 Erregelamenduak (EE) aldatu du) araututako transferentzia guztiei.**

**Hau da, estatuan eurotan egindako transferentziei eta Europako Esparru Ekonomikoko estatu kideen artean kontutik kontura egindako transferentziei.**

| JAULKITAKO TRANSFERENTZIAK | Transferentzia tramitatzearen komisioa | | |
|---|---|---|---|
| | % | Min. | Max. |
| **Transferentzia Arrunta (1)**<br>- Banakako agindua<br>- Agindua transmisioan edo euskarri magnetikoan<br>- Aldizkako agindua (kanala edozein izanda ere) | <br>0,40<br>0,35<br>0,40 | <br>5,00<br>5,00<br>5,00 | <br>300<br>300<br>300 |
| **Berehalako Transferentzia (2)**<br>**(Komisio gehigarria aurrekoaren gainean)**<br>- Pertsona fisikoak<br>- Pertsona juridikoak | 2,00 eur (bakarra)<br>6,00 eur (bakarra) | | |
| **Transferentzia Urgentea Espainiako Bankutik (3)**<br>- Banakako agindua<br>- Agindua transmisioan edo euskarri magnetikoan | <br>0,40<br>0,35 | <br>30,00<br>25,00 | <br>300<br>300 |

(1) **Transferentzia Arrunta:** Agindua zeinean funtsak onuradunaren bankuari emateko gehieneko epea egun baliodun bat den agindua jasotzen den unetik.
(2) **Berehalako Transferentzia:** Agindua zeinean funtsak onuradunaren bankuari emateko gehieneko epea gehienez ere 20 segundo den agindua jasotzen den unetik.
(3) **Transferentzia Urgentea Espainiako Bankutik:** Agindua zeinean onuradunaren kreditu-erakunderako funts-intsuldaketa erakunde horrek eta Laboral Kutxak Espainiako Bankuan irekita dituzten kontuen bidez gauzatzen den..

| JASOTAKO TRANSFERENTZIAK | Transferentzia tramitatzearen komisioa | | |
|---|---|---|---|
| | % | Min. | Max. |
| **Transferentzia Normala (kontuan zordunduta)** | 0,02 | 2,00 | 75,00 |
| **Presako transferentzia (egun berean ordaintzekoa, kontuan zordunduta).** | 0,02 | 2,00 | 75,00 |

| KONTZEPTU OSAGARRIAK | Komisioa | | |
|---|---|---|---|
| | % | Min./ finkoa. | Max. |
| **Eskudirutan ordaintzea edo jasotzea.**<br>**Agindua efektiboa emanez eta ez kontuan kargatuz/ordainduz egiten denean, komisio gehigarri bat jasoko da** | 0,30 | 6,00 | 75,00 |

| KONTZEPTU OSAGARRIAK | Komisioa | | |
|---|---|---|---|
| | % | Min./ finkoa. | Max. |
| Nahikoak ez diren edo okerrak diren datuekin jaulkitako transferentzien kasuan (agindu-emailearen eta onuradunaren kontuen BIC edo IBAN osoa eta balioduna azaltzea beharrezkoa da, baita azken horren izena edo izen soziala ere), adierazitako komisio osagarria kobratuko da, betiere, entitateak eragiketa egitea onartu eta bezeroari hori burutzearen kostua adierazi ostean, bezeroak transferentzia jaulkitzea onartzen badu. | 0,10 | 6,00 | 150.00 |
| Datuak bilatzea:<br><br>Onuradunaren izena agindu-emaileak adierazitako kontuko titular gisa azaltzen ez bada, edo jasotako CCCa edo IBANa existitzen ez bada edo okerra bada, komisio osagarria bat kobratuko da, betiere, entitateak eragiketa egitea onartu eta bezeroari hori burutzearen kostua adierazi ostean, bezeroak transferentzia jaulkitzea onartzen badu. Bestela, transferentziaren zenbatekoa itzuli egingo da. | 0,30 | 10,00 | 150,00 |
| Ordainketa-balantzari jakinaraztea.<br><br>Egoiliarren eta ez-egoiliarren arteko 50.000 €-tik gorako eragiketak (bakarra eragiketa bakoitzeko). | -- | 6,00 | |
| Jarraibide bereziak betetzea (arruntak eta ordainketa-aginduak bakarrik).<br><br>Agindu-emaileak abisu zein jakinarazpen bereziak igortzeko edo harreman-bide bereziak erabiltzeko eskatzen duenean, betiere eragiketaren tratamendu automatikoa ezinezkoa baldin bada. | -- | 6,00 | |
| Moneta-trukea.<br><br>Zordunketa-kontuan euroaz bestelako monetaren bat erabili behar izanez gero. | 0,20 | 6,00 | 150,00 |
| Egiaztagiria<br><br>Transferentzien edo askotariko beste ordainketa-agindu batzuen agindu-emaileak buruturiko likidazioaren laburpen-orriaz gain ordainketa-agindu bakoitzerako egiaztagiri indibidual bat egiteko, edo onuradunari egiaztagiria bidaltzeko, eskatzen badio Euskadiko Kutxari. | -- | 6,00 | |
| Onuradunak buruturiko likidazioaz gain beste egiaztagiri bat egiteko eskatzen badio Euskadiko Kutxari. | -- | 6,00 | |
| Transferentzien agindu-emaileak onuradunari posta elektronikoz edo komunikaziorako beste edozein tresna elektronikoz egiaztagiria bidaltzeko eskatzen badio Euskadiko Kutxari. | -- | 0,30 | |

| KONTZEPTU OSAGARRIAK | Komisioa | | |
|---|---|---|---|
| | % | Min./ finkoa. | Max. |
| Transferentziak baliogabetzea, aldatzea eta itzultzea: Dagoeneko buruturiko edozein transferentzia-agindu baliogabetzeko, aldatzeko edo atzera egiten saiatzeko bezeroak agindutako edozein kudeaketa estaltzen du zerbitzu horrek. Finkaturiko prezioa kobratuko da, nahiz eta entitateari egotzi ezin zaizkion arrazoien ondorioz kudeaketek emaitzarik ez eman. | 1,00 | 30,00 | |

**3.- NOMINAK ETA PENTSIOAK.**

| NOMINEN ETA PENTSIOEN ORDAINKETA AGINDUAK JAULKITZEA | Transferentzia tramitatzearen komisioa | | |
|---|---|---|---|
| | % | Finkoa | Max. |
| Fitxategi / euskarri magnetiko bidezko ordainketa-agindua:<br>- Euskadiko Kutxaren gain:<br>- Beste entitate batzuen gain: | <br>--<br>-- | <br>--<br>5,00 | --<br>-- |
| Zerrendari edo listatuari jarraiki ordaintzeko agindua:<br>- Euskadiko Kutxaren gain:<br>- Beste entitate batzuen gain: | <br>--<br>-- | <br>--<br>5,00 | --<br>-- |
| Oharra: enpresak Kutxari kontu-zordunketaren abisua igortzeko eskatzen badio, 0,30 €-ko komisio osagarria eta eragiketa bakoitzaren posta-gastuak ordaindu beharko ditu. | | | |

| NOMINEN EDO PENTSIOEN ORDAINKETA AGINDUAK JASOTZEA | Transferentzia tramitatzearen komisioa | | |
|---|---|---|---|
| | % | Min. | Max. |
| Nomina edo pentsio motako transferentzia (kontuan ordainduta) | -- | -- | -- |

**4.- BARNE TRANSFERENTZIAK.**

| Entitateko kontuen arteko transferentziak | Transferentzia tramitatzearen komisioa | | |
|---|---|---|---|
| | % | Min. | Max. |
| Titular beraren kontuen arteko intsuldaketak | -- | -- | -- |
| Hirugarrenei transferentziak Entitateko kontuen artean (bidea edozein dela ere). | 0,15 | 2,00 | 100,00 |

## 5.- ORDAINKETA AGINDUAK ESKUDIRUTAN.

| NOMINEN ETA PENTSIOEN ORDAINKETA AGINDUAK JAULKITZEA | Transferentzia tramitatzearen komisioa | | |
|---|---|---|---|
| | % | Finkoa | Max. |
| Ordainketa-aginduak eskudirutan | 0,40 | 10,00 | 300,00 |
| Oharra: Komisio hori kobratuko da ordainketa Euskadiko Kutxaren leihatilan egiten denean, agindu-emaileak emaniko zerrendari jarriki eta beti agindu-emailearen kontura. | | | |

**1. oharra: NOMINA ORDAINKETEN ABISUA**

Kontu bidez ordaindutako nominei dagokienez, Kutxak onuradunei ez die ordainketa-abisurik igorriko, Enpresak aurretiaz bidali ohi dien hartzekoen kitapen indibidualaren orrian datu hori berariaz adierazten baita.

**2. oharra: AGINDU DATA**

Bezeroak emandako aginduan sinadurak bat ez badatoz, edo zordunketa-kontuko saldoa behar adinakoa ez bada, falta diren baldintzak bete ondoren agindua gauzatzen den eguna hartuko da agindu-datatzat.

Nominen ordainketak ez atzeratzeko, enpresa agindu-emaileak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Bere kontuetako fondoak behar bestekoak izatea.
- Agindua ordainketa-data baino egun batzuk lehenago ematea:
    - Euskarri magnetikoa: 2 egun baliodun lehenago.
    - Eskuzko zerrenda: 3 egun baliodun lehenago.

**3. oharra:**

Truke eta Txekeei buruzko Legearen 6. artikuluaren arabera, kobratutako merkataritza-efektuek igorpendunari interesak sorrarazten badizkiote, 01. EPIGRAFEKO 6. oharrari jarraiki, interes horiek entitate hartzaileari ordaintzea transferentziatzat hartuko da, eta, beraz, aipatutako kontzeptuari dagokion komisioa kobratuko zaie.

## 07. EPIGRAFEA: ORDAINKETA ZERBITZUAK. TXARTELAK ETA KUTXAZAINAK ERABILTZEA.

### KREDITU- ETA ZORDUNKETA-TXARTELAK

**Oharra:**

**Kreditu- eta zordunketa-txartelak jaulkitzeko kontratuetan aplikatu daitezkeen interes-tasetan, komisioetan edo jasanarazitako gastuetan aldaketarik eginez gero, aldaketak horiek aplikatzen hasi baino gutxienez 2 hilabete lehenago jakinarazi beharko zaizkio bezero bakoitzari.**

### 1.- SALTOKIAK: FAKTURAZIOA

- **Komisioa edo deskontua: sistemarekin bat egiteko kontratuaren araberakoa.**

### 2.- KUOTAK Urteko kuota, txartela jaulkitzeagatik edo berritzeagatik

| 2.1.- KREDITU-TXARTELAK | | | |
|---|---|---|---|
| TXARTEL MOTA | TITULARRA | HURRENGO TXARTELAK | ENPRESA |
| CLASICC | 35,00 euro | 20,00 euro | 35,00 euro |
| ORO | 65,00 euro | 65,00 euro | 65,00 euro |

| 2.2.- ZORDUNKETA-TXARTELAK | | | |
|---|---|---|---|
| ELECTRÓN | 30,00 euro | 30,00 euro | 30,00 euro |

| 2.3.- BESTE TXARTEL BATZUK | | | |
|---|---|---|---|
| TELEPEAJE VÍA T, jaulkipen-kuota lehen urtean | 50,00 euro | 50,00 euro | 50,00 euro |
| TELEPEAJE VÍA T, urteko kuota | 20,00 euro | 20,00 euro | 20,00 euro |

**3.- BESTE ZERBITZU BATZUK**

| **3.1.- KUTXAZAINEAN EDO LEIHATILAN ZORDUNKETA BIDEZ DIRUA ESKURATZEA** | |
|---|---|
| **Gure erakundean bertan** | **Komisiorik ez** |
| **Estatuko beste erakunde batzuetan** | **Kutxazainaren erakundeak aplikatutako zenbatekoa** |
| **Atzerrian** | **3,00 euro** |

| **3.2.- KUTXAZAINEAN EDO LEIHATILAN KREDITU BIDEZ DIRUA ESKURATZEA** | |
|---|---|
| **Erakundean bertan** | **Zenbatekoaren %4, gutxienez 3,00 euro** |
| **Estatuko edo atzerriko beste erakunde batzuetan** | **Zenbatekoaren %4, gutxienez 3,00 euro + Kutxazainaren erakundeak aplikatutako komisioa dirua eskuratzeagatik** |
| **Atzerrian** | **Zenbatekoaren %4, gutxienez 3,00 euro** |

| **3.3.- BESTERIK** | |
|---|---|
| **Dibisa-aldatzeagatiko komisioa: likidazio-zenbatekoaren %1 dibisa bat Eurotara aldatu izanak eragindako transakzioetan** | **Zenbatekoaren %1** |
| **Saldoa edo mugimenduak kontsultatzea, beste erakunde batzuen kutxazainetan** | **1,00 €** |
| **Txarteleko kreditutik dirua atera eta kontu korrontean edo aurrezki-libretan sartzea** | **Zenbatekoaren %3, gutxienez 2,40 euro** |
| **Telepeaje Vía T txartelaren kopia bat edo txartel berria ematea, titularraren erruz txartela blokeatuz gero** | **50,00 euro** |
| **TXARTELETAN, FINANTZATUTAKO ORDAINKETETAN MUGAEGUNERATUTAKO POSIZIO ZORDUNAK ERREKLAMATZEAGATIKO KOMISIOA**<br><br>Ez-ordaintze egoera erregularizatzeko egin beharreko gestioengatik entitateak komisioa ezarriko du: | |
| • Ordaindu gabe dagoen zenbatekoa 50 €-tik gorakoa bada eta ez-ordaintzea gertatu ondorengo 10 eguneko epean ordaintzen bada, zenbateko hori berreskuratzeko jakinarazpen bakarra bidaltzen den kasuetan. | **0,90 €** |
| • Ez-ordaintze egoeraren iraupena 10 egunetik gorakoa eta 35 egunetik beherakoa bada —eta, beraz, 10 egunetik beherako kasuetan baino baliabide gehiago bideratu behar badira zenbatekoa berreskuratzeko. | **9 €** |
| • Ez-ordaintze egoerak 34 egun baino gehiago irauten badu —eta, beraz, aurretik aipatutako kasuetan baino baliabide gehiago bideratu behar badira. | **35 €** |

| | |
|---|---|
| Komisioa behin bakarrik ezarriko da mugaeguneratutako eta erreklamatutako zenbateko bakoitzeko, ordaindu gabekoa behin baino gehiagotan erreklamatu eta egoera luzatu arren. | |
| Txartelen kopiak jaulki izanagatiko komisioa:<br>10 euroko komisioa egongo da txartelen kopiak jaulki izanagatik, baldin eta jaulkipena egin izanaren zergatia bezeroak eragin badu. | 10 euro |
| Ordainketa zatikatzeagatiko gestio-gastuak:<br>Komisioa saltokietan egiten diren erosketa-eragiketetan aplikatuko da, geroratutako ordainketaren zenbatekoaren gainean. | 3 hilabetera: 5 euro<br>6 hilabetera: 20 euro<br>9 hilabetera: 30 euro<br>12 hilabetera: 40 euro |
| Kutxazainetan beste entitate batzuen txartelak erabiltzea:<br>Kutxazainetan eskudirua ateratzea Europar Batasuneko entitateen txartelekin<br>Kutxazainetan eskudirua ateratzea Europar Batasunetik kanpoko entitateen txartelekin | 1,75€ eragiketako<br>5,00€ eragiketako |

| 3.4.- SALMENTA PUNTUKO TERMINALAREN ZERBITZUA. | |
|---|---|
| 3.4.1.- Salmenta Puntuko Terminalaren (SPT) instalazioa. | 150 € |
| 3.4.2.- Salmenta Puntuko Terminalaren (SPT) mantenimendua.<br>• SPT mugikor edo haririk gabekoaren mantenimendua (GPRS, bluetooth edo antzekoa):<br>• Gainerako datafonoak: | 40 € terminaleko eta hileko<br>30 € terminaleko eta hileko |
| 3.4.3.- Salmenta Puntuko Terminalaren (SPT) zerbitzua. | 10,01 € / hilean |
| 3.4.4.- Jaulkitzaileari fakturak izapidetzea | 6 € / faktura |

## 08. EPIGRAFEA: ORDAINKETA ZERBITZUAK. AGERIKO GORDAILUAK

**Epigrafe honetan jasotako tarifak gehienezkoak dira, eta bezero guztiei aplikatuko zaizkie (kontsumitzen dutenei eta kontsumitzen ez dutenei).**

| Zehazpena | Komisioa |
|---|---|
| 1.- Kontu korronteak eta aurrezki-kontuak mantentzea (1. oharra). | 60,00 € |
| 2.- Administrazio-komisioa (2. oharra). | 0,10 € |
| 3.- Helbideratze-aginduak ez baliogabetzearen edo zenbatekoarekin ados ez egotearen ondoriozko okerreko eragiketak atzera botatzeko kudeaketa. | 3,00 € |
| 4.- Zorpekoen komisioa.<br><br>Zorpekoetan, likidazio-aldi bakoitzean % 4,00ko komisioa aplikatuko da, zorpekoaren saldo handienaren gainean (gutxienez 15 €). (4. eta 5. oharrak). | |
| 5.- Ordaindugabeak eta zorpekoak erreklamatzeko eragiketak kudeatzea. (3. oharra). (2, 7, 14 eta 18 epigrafeak).<br><br>Behin bakarrik kobratuko da, nahiz eta zorpekoak likidazio-aldi bat baino gehiago hartu eta kontuak zeinua ez aldatu, baldin eta erreklamazioa benetan gertatu bada. | 35,00 € |
| 6.- Dokumentuan bertan txekearen adostasun idatzia. (03 epigrafea). Adostasuna betetzeagatik, Kanbio-letraren eta Txekearen Legearen 110. artikuluaren arabera. | Txekearen nominalaren %o 4; gutxienez 15 € |
| 7.- Bezeroak eskatuta, sarrerari lotutako dokumentuak manipulatu eta ordenatzea. | Abonuaren % 0,5 |
| 8.- Ez ordaintzeko eta blokeatzeko aginduak. (6. oharra). | 1,5 € aginduko |
| 9.- Zordundutako txekeen fotokopiak .(7. oharra). | 6,01 € txekeko |
| 10.- Zordundutako letren fotokopiak. (7. oharra). | 6,01 € letrako |
| 11.- Sinadura eta saldoak egiaztatzea.<br><br>Kontu korrontearen titularrak leihatilan eskudirua ateratzea, kontua helbideratuta ez dagoen sukurtsal batean. | 1,50 € eragiketako |
| 12.- Kontratua deuseztatzeari lotutako gastuak (12 hiletik beherako iraupena duten kontratuetarako bakarrik). | 12,00 € |

| Zehazpena | Komisioa |
|---|---|
| **13.- Ordaindukoen txeketegiak.**<br><br>**Txeketegi bakoitza jaulkitzeagatik.** | <br><br>**7,00 €** |
| **14.- Txeke edo ordaindukoen txeketegi pertsonalizatua:**<br><br>▪ **Zerbitzuan alta ematea, bezeroak logotipoa eskatzen duenean (behin kobratuko da, alta ematean).**<br>▪ **Paper jarraituko edo orri solteko dokumentu bakoitzeko.** | <br><br>**20,00 €**<br><br><br>**0,06 €** |
| **15.- Informazioa bidaltzearen komisioa.**<br><br>**Kontuaren mugimenduen laburpena doan igorriko da hilean behin.**<br><br>**Bezeroak kontuko mugimenduen laburpenak egunean, astean edo hamabostean behin bidaltzeko eskatzen badu, 5 €-ko komisioa ezarriko da, likidazio-aldi bakoitzeko. Gainera, laburpen bakoitzeko 0,34 €-ko komisioa kobratuko da, likidazio-aldi bakoitzeko lehen 5 laburpenetan izan ezik.**<br><br>**Bezeroak beste kontu-laburpen bat eskatzen duenean, 15,00 €-ko komisioa kobratuko zaio bakoitzeko, baldin eta eskaera intzidentzia bat ebazteko ez bada; kasu horretan, doan bidaliko zaio.** | |
| **16.- 43 koadernoaren formatuko fitxategiko laburpen jarraitua. (CLNET edo EDITRAN bidez igortzea).**<br><br>**Hil eta kontratu bakoitzeko zenbatekoa.** | <br><br>**200 €** |
| **17.- Moneta-frakzioak eta billeteak kontatzea.**<br><br>**Txanponak eta/edo billeteak kontatze hutsagatik, bezeroak hala eskaturik.**<br><br>**Komisioa: %1,5 esku-diruaren gain.**<br>**Gutxienez 6,01 €.**<br><br>**17.1.- Moneta Zerbitzuen Tarifak.**<br><br>**Diru xehea lortzeko zerbitzua erabiltzeagatik, enpresa-, lanbide-, elkarte- eta merkataritza-jarduerak dituzten pertsonek eta erakundeek (partikularrek ez beste guztiek) honako komisio hauek ordaindu beharko dituzte:**<br><br>**Kartutxo bakoitzaren:** | |

**Komisioa**

| Monetaren balio faziala | Kartutxoaren zenbatekoa | Kontuan Zordundutakoa | Eskudirutan |
|---|---|---|---|
| 2,00 | 50,00 | 1,00 € | 1,50 € |
| 1,00 | 25,00 | 0,50 € | 1,00 € |
| 0,50 | 12,50 | 0,25 € | 0,50 € |
| 0,20 | 5,00 | 0,20 € | 0,40 € |
| 0,10 | 5,00 | 0,20 € | 0,40 € |
| 0,05 | 2,50 | 0,10 € | 0,20 € |
| 0,02 | 1,00 | 0,05 € | 0,10 € |
| 0,01 | 0,50 | 0.05 € | 0,10 € |

**17.2.- Aparteko Eskudirua Ematea.**

**Sukurtsaletik eskudirua ateratzean, neurri normaletik irteten bada (30.000 € baino gehiago badira eta 24 orduko aurreabisurik gabe eskatu bada), 45 €-ko komisioa kobratuko zaio bezeroari maneiatze eta segurtasun-garraioko aparteko gastuengatik.**

**1. oharra. Ageriko gordailua mantentzeko zerbitzua**

**Likidazioa adierazitakoa ez den epealdiren batean egiten bada, kontua likidatzen deneko urtearen araberakoa izango da komisioaren zenbatekoa.**

**Pertsona juridikoen kontuetan, aipatutako komisioaren ordez, urtean gehienez % 0,60ko komisioa aplikatu ahal izango da, gutxienez 60 eurokoa, eta likidatutako aldiaren batez besteko saldoaren gainean likidatuko da hilero. Aplikatu beharreko ehunekoa kontratu bidez ezarriko da.**

**2. oharra. Ageriko gordailua administratzeko zerbitzua**

**Likidazio-aldi bakoitzeko lehen 50 mugimenduak salbuetsita daude. Honako hauek ez dira komisioa kobratzeko moduko eragiketatzat hartuko:**

- **txekeak zorduntzea**
- **interesak abonatu edo zorduntzea**
- **komisioak zorduntzea**
- **eskudirua sartzea**
- **dirua ateratzea**

**3. oharra. Zorpekoak erreklamatzea**

**Zorpekoen erreklamazioetan, hirugarrenek esku hartzearen ondoriozko aparteko gastuak kobratuko zaizkio bezeroari.**

**4. oharra. Zorpekoen komisioa**

**Balioztapenaren ondoriozko zorpekoetan ez da komisio hori kobratuko, eta hitzartutako beste zorpeko batzuetan ere ez da aplikatuko, baldin eta kontuaren hurrengo likidazioa baino lehen gertatzen badira.**

**5. oharra. Zorpekoetarako kredituaren UTBa**

**Komisio hau eta likidazio-aldian zorpekoak sortutako interesak kobratzeko urteko tasa baliokidea (UTBa) ez da diruaren legezko interes-tasa baino 2,5 aldiz handiagoa izango, kontsumitzaile bat titular duten kontuko zorpeko moduan ematen diren kredituetarako.**

**6. oharra. Ez ordaintzeko eta blokeatzeko aginduak**

**Txekeen kasuan, jaulkipen-datatik 15 egun pasatu ostean bakarrik jasoko dira, dokumentuz justifikatutako lapurretaren edo galtzearen kasuetan izan ezik. Hurrenez hurren, Kanbio-letra eta Txekearen Legearen 135 eta 138 artikuluetan ezarritako epe eta baldintzak hartuko dira horretarako aintzat.**

**7. oharra. Fotokopiak**

**Behar bezala zordundutako eragiketetan aurrez bezeroari horiek egiaztatzeko behar adinako dokumentazioa bidali zaionean bakarrik kobratuko da.**

**8. oharra. Hirugarrenen kontuan egindako diru-sarreraren egiaztagiri berezia igortzea honako datu gehigarriekin:**

- **Diru-sarrera egitearen kontzeptua eta bezeroak emandako 2 identifikazio-erreferentzia.**

**Komisioa: 6 € egiaztagiriko.**

**9. oharra. Aparteko datuen egiaztagiria**

**Gordailuaren onuradun titularraren kontura izango dira kobrantza-zerbitzua emateko eragiketetan sortzen diren komisioak, baldin eta aparteko datuen egiaztagiria eskatzen bada eta kontuaren titularrari jakinarazi egin behar bazaio. Kontuko sarreraren egiaztagirian, sarreraren kontzeptua eta bezeroak emandako identifikazio-erreferentzia bat edo bi sartzen dira aparteko datu gisa. Kontuaren titularraren paperezko laburpenean, eragiketaren kontzeptua ere adieraziko da, eskatuz gero. Ezin izango da komisio hori aplikatu, bezeroak eskatutako sarrerari lotutako dokumentuak manipulatzearen eta ordenatzearen tarifa (epigrafe honetan sartu dena) kobratuz gero.**

